

*EBAZPENA, 2024ko apirilaren 15ekoa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita administrari laguntzaile lanpostu bat lehiaketa-oposizio eta txanda ireki bidez betetzeko hautaprobetako lehen ariketaren erantzun zuzenen behin-behineko orria.*

2023ko maiatzaren 17ko Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak emandako ebazpenaren bidez, ondorengo lan-kontratudun finkoak hartzeko hautaketa-prozesurako deia egiten zen: komunikazio digitalerako teknikaria, sistema teknikaria, administrazioko eta zerbitzuetako teknikari eta administrari laguntzailea. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 98. zenbakian argitaratu zen 2023ko maiatzaren 25ean.

Era berean, 2023ko abenduaren 29an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 247. zenbakian argitaratu zen 2023ko azaroaren 27an Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak emandako ebazpena, zeinaren bidez argitaratu ziren administrari laguntzailearen kategoriako lan-kontratudun finko bat txanda irekiaren bidez hartzeko hautaketa-prozesuaren oinarri espezifikoak eta zabaltzen zen aipatutako prozesuan izena emateko epea.

Ebazpen horren 13.2 puntuan adierazten denez, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren ebazpen bidez argitaratuko da erantzun zuzenen behin-behineko orria. Gainera, bost egun balioduneko epea izango dute hautagaiek antzemandako akatsak jakinarazteko, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Alegatu diren akatsak kontuan hartuta, Epaimahaiak erantzun zuzenen behin betiko orria onartuko du eta ariketak edo probak irakurri eta kalifikatuko ditu.

Hori dela eta, Etxepare Euskal Institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen 2008ko maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuaren 18. artikulua araberan, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lehen ariketaren erantzun zuzenen behin-behineko orria Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoa argitaratzea, ebazpen honen lehenengo eranskin gisa.

Bigarrena.- Hautagaiei bost egun balioduneko epea ematea antzemandako akatsak jakinarazteko. Epe hori igarota, eskubide hori galduko dute.

Hirugarrena.- Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoa argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoa argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2024ko apirilaren 15a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,  
IRENE LARRAZA AIZPURUA.

## 1. ERANSKINA

- |       |       |        |
|-------|-------|--------|
| 1. D  | 40. B | 79. A  |
| 2. B  | 41. B | 80. B  |
| 3. D  | 42. D | 81. C  |
| 4. B  | 43. C | 82. B  |
| 5. C  | 44. D | 83. C  |
| 6. D  | 45. C | 84. A  |
| 7. D  | 46. D | 85. D  |
| 8. B  | 47. B | 86. B  |
| 9. B  | 48. B | 87. C  |
| 10. C | 49. C | 88. B  |
| 11. C | 50. A | 89. C  |
| 12. C | 51. A | 90. B  |
| 13. A | 52. C | 91. D  |
| 14. D | 53. D | 92. B  |
| 15. C | 54. C | 93. B  |
| 16. D | 55. D | 94. D  |
| 17. D | 56. D | 95. B  |
| 18. A | 57. B | 96. C  |
| 19. D | 58. B | 97. C  |
| 20. B | 59. C | 98. C  |
| 21. D | 60. B | 99. C  |
| 22. B | 61. B | 100. D |
| 23. A | 62. C |        |
| 24. D | 63. D |        |
| 25. C | 64. A |        |
| 26. A | 65. B |        |
| 27. D | 66. B |        |
| 28. C | 67. D |        |
| 29. D | 68. D |        |
| 30. D | 69. C |        |
| 31. D | 70. B |        |
| 32. D | 71. D |        |
| 33. D | 72. D |        |
| 34. A | 73. C |        |
| 35. C | 74. B |        |
| 36. B | 75. A |        |
| 37. C | 76. A |        |
| 38. A | 77. C |        |
| 39. C | 78. A |        |
- Erreserbakoak:**
- |       |
|-------|
| 1. C  |
| 2. B  |
| 3. A  |
| 4. B  |
| 5. D  |
| 6. B  |
| 7. D  |
| 8. D  |
| 9. C  |
| 10. B |